## EMPRESARIAREN PUBLIZITATEA. MERKATARITZAKO ERREGISTROA

## MERKATARITZAKO ERREGISTROA

- **Merkataritzako publizitate motak**

- Publizitate pribatu edo komertziala. Propaganda
- Legezko publizitatea:
  - Merkataritza Erregistroa (*merkatariaren statusa* –banakako enpresariarentzat borondatezkoa eta derrigorrezkoa sozialarentzat)
  - Jabego Erregistroa
  - Merkataritzako Erregistroko Aldizkari Ofiziala (MEAO/BORME**)**

- **Aurrekinak, kontzeptua eta antolaketa**
- Aurrekinak. Korporazioetako matrikulak (Erdi Aroa)
- Merkataritzako Kodea (1829)
- Gaur egun: Merkataritzako Kodea (1885) **eta** Merkataritzako Erregistroko Erregelamendua (1996)

- **Kontzeptua**

- Bulego publikoa
- Bi sistema: inskripzio sistema eta gordailu sistema (fitxeroa)
- Erregistro sistema:
  - Pertsonen erregistroa
  - Urteko Kontuen eta Taldeen Kontu bateratuen argitarapena (erregistratzailearen *legezkotasuna –kalifikazio- funtzioa*)
  - Erregistro eta Notaritza Orokorraren Zuzendaritza (ENZO/DGRN) (Justizia Ministerioaren menpean)

- Inskripzio objektua eta subjektuak (MK 16.1 art.)
- Banakako enpresariak
- Merkataritzako sozietateak
- Aseguru eta kreditu entitateak
- Elkarrenganako berme sozietateak
- Inbertsio kolektiboko instituzioak eta pentsio fondoak
- Legeak agindutako pertsona fisikoak eta juridikoak

- Interes Ekonomiadun Elkarteak
- Legeak aurreikusitako egintza eta kontratuak

- **Antolaketa**

- Lurraldeko Merkataritza Erregistroak, probintzia bakoitzeko lurraldean (MEE 16 art.). Antolaketa eta funtzioak: inskripzioak, liburuen legalizazioa, aditu eta auditoreen izendapena, Urteko Kontuen gordailua
- Merkataritzako Erregistro Zentrala. Antolaketa eta funtzioak (Lurraldeko Erregistroek emaniko inskripzioen funtsezko dautak jaso, zentralizatu eta argitaratu). Merkataritzako Erregistroko Aldizkari Ofiziala (MEAO/BORME)

## ERREGISTROKO PUBLIZITATEAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

- Inskripzioaren derrigorrezko inskripzioa (MK 19.2 art.)
  - Inskripzioaren *eraginkortasun adierazlea* edo informatiboa (egintza inskribatu gabe egon arren balioa dauka)
  - Inskripzioaren *eraginkortasun eratzailea* (egintzak, bakarrik inskribaturik izango da eraginkorra)
- Tituluduntza publikoaren printzipioa (dokumentu publikoa) (MK 18.1 art.)
- Legitimazio edo errogazio printzipioa (alderdiak eskaturik) (MK 18.2 art.)
- Legezkotasun printzipioa (funtzio kalifikatzailea) (MK 18.2 art.)
- Publizitate formalaren printzipioa (izaera publikoa) (MK 23 art.)
- Legitimazio printzipioa (baliozkoa eta zehatza) (MK 20.1 art.)
- Fede publikoko printzipioa (MK 20.2 art.)
- Publizitate materialaren printzipioa (hirugarrenen aurrean aurkagarria)
  - Erregistroko idazpenak egintza deusezak ez ditu balioesten, horretarako epaile baten epaia beharko da (MK 20.1)
  - Erregistroko idazpen okerrak ez du egintza juridikoa balioesten. Hala ere, fede oneko hirugarren baten eskubidea ez du urratuko
  - Erregistroko izendapenak hirugarrenen aurrean eraginkorra izango da idazpena MEBOAn argitaratzen denetik (MK 21.1).

- Dena den, frogatzen duenak hurrengo hamabostaldian ez zuela argitalpena ezagutzeko modurik, bere eskubidea aurkatu dezake (MK 21.2)

- Idazpena eta MEBOAren arteko aldea kaltetuta atera denaren alde egingo du. Berak aukeratuko baitu bietatik gehien komeni zaion aukera (MK 21. artikulua)

- Lehentasun printzipioa, inskribatu den lehenengo ekintzak lehentasuna izango du (MEE 10 art.)
- *Traktu jarraiaren* printzipioa, subjektu bati buruzko idazpenarik ezin da jaso, lehenengo subjektua bera inskribatu ez bada (MEE 11 art.)

**MERKATARITZA ERREGISTROAREN ERAENTZA JURIDIKOA**

- Idazpen motak (MEE 33.2 eta 36.1 artikuluak):
    - Aurkezpena
    - Inskripzioa
    - Kantzelazioa
    - Aurretiko idazpena
    - Alboko idazpena (nota marginal)
- Inskripziorako prozedura (MEE 17, 42 eta 59.1 art.):
    - Eskaera
    - Onartzea (onarpena edo etendura)
    - Ez-onartzea (helegite gubernatiboa; Notaritza eta Erregistroko Zuzendaritza Orokorra - DGRN-ren aurrean gorako –altzadako- helegitea; bide zibila)